# ITZIARKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIA

# SANTUARIO DE NUESTRA SEÑORA DE ITZIAR





*Itziarko elizaren antzinako aurrekaldea*
*Fachada de la primitiva iglesia de Itziar*

Izarraitz mendigune karstikoan dago eta kostaldetik doan Santiago Bideko eraikinik garrantzitsuenetako bat da.

Itziar (Ticiar) izenaren lehenengo idatzizko aipamena 1027koa da. Bi mende beranduago, 1294an, Gaztelako Santxo IV.ak hiri gutuna eman zion Iciarko Montreali, non bertako eliza aipatzen den: *"e demosles nuestra Yglesia que dicen de Santa María con todos los derechos que nos ".* Hala, pentsa daiteke ordurako han bazela tenplu bat.

Gaur egungo tenpluaren hormak bertako kareharriz egin daude eta, horietan, argi eta garbi nabari dira bi eraikin bata bestearen gainean. Behekoa XIV. mendekoa da seguru asko eta, itsututa badaude ere, nabari dira garai hartako hainbat leihate. Portada askoz berriagoa da, 1722 eta 1723 urteetan egina.

XIV. mendeko eraikin horren gainean, gaur egungo tenplua altxa zuten XVI. mendean, altuagoa, kontrahormekin eta ojiba gangekin.

### Andre Mariaren irudia

Tenpluaren barruan, Itziarko Andre Mariaren irudi erromanikoa dago, XIII. mendekoa. Andre Mariari buruzko euskal ikonografiako irudirik ederrenetakoa da eta Gipuzkoako zaharrenetakoa dela diote, Irungo Junkaleko Andre Mariarekin batera. Euskadi osoko arrantzaleek gurtu izan dute Amabirjina hau eta oraindik ere kostaldeko hainbat herritatik erromesaldiak egiten dira santutegira.

### Erretaula

XVI. mendeko lan bikaina da. Uste da Andres de Araoz eskultoreak egina dela, baina batzuek diote bi estilo eta konposizio desberdin dituela: bata XVI. mendearen hasierakoa, gotikoaren eraginekin, eta bestea mende horren erdialdekoa, errenazentista, eta badirudi hor sumatzen dela Andres de Araozen eskua. 1783an, erretaula moztu egin zuten, Amabirjinaren ganbaratxoa egin zutenean. Ondoren, 1893an, sute batek erre egin zuen erretaularen zati bat eta, 1899an, berritu egin zuten.



*Tenpluaren barrua - Interior del templo*

### Tradizioak eta bitxikeriak

Kondairak dioenez, hasiera batean tenplua beste leku batean eraikitzekotan ziren, eta ez gaur egun dagoen lekuan; baina, aingeruek, Amabirjinaren nahia betez, gaur egun dagoen lekura eramaten zituzten materialak.

Juan Sebatian Elkano Magallanesen espedizioko buru bihurtu zen, hura hil zenean, eta munduari buelta ematen lehena izan zen. Testamentuan idatzita utzi zuen borondatearen arabera, urrezko berrogei dukat eman behar zitzaizkion Itziarko Andre Mariari.

Tenpluaren fatxada nagusiaren horman, kareharrizko bola handi bat dago sartuta. Tradizioak dioenez, *pedrero* handi baten jaurtigaia da –pedreroa garai bateko artilleriako pieza bat da–, Debako itsasontzi bateko marinelek portugaldarrei kendutakoa Errege Katolikoen garaian, Bayona de Miñon. Bola horman sartu zuten, 1476an, balentria haren zinopari eta oroigarri moduan.

Dirudienez, XIX. mendera arte, artilleriako elementuren bat zuten merkataritzako nahiz gerrako itsasontziek hogei kanoi salba jaurtitzen zituzten Itziarko santutegiaren paretik pasatzean.



Está situado a los pies del macizo kárstico de Andutz, uno de los relieves más pronunciados del Geoparque de la Costa Vasca. Es uno de los hitos más importantes del Camino de Santiago en la Vía del Norte.

La primera referencia escrita donde aparece el nombre de Itziar (Ticiar), corresponde al año 1027. Dos siglos después, en 1294, Sancho IV de Castilla concede a Montreal de Iciar la carta puebla donde se menciona a su iglesia:

*"e demosles nuestra Yglesia que dicen de Santa María con todos los derechos que nos ..."*, lo que induce a pensar que para esas fechas ya existía un primitivo templo.

Los muros del templo actual, construído con piedra caliza local, muestran claramente dos construcciones superpuestas. La parte inferior es probablemente del siglo XIV y aunque cegados, se pueden apreciar varios ventanales de la época. La portada es muy posterior, puesto que fue realizada entre los años 1722 y 1723.

Sobre esa construcción del siglo XIV, se levantó en el siglo XVI el actual templo, más alto, con contrafuertes y con bóvedas de crucería.

### La imagen de Nuestra Señora

El interior del templo acoge la imagen románica de la Virgen de Itziar, del siglo XIII. Es una de las más bellas de la iconografía mariana vasca y está considerada, junto a la del Juncal de Irún, como la más antigua de Gipuzkoa. Esta Virgen ha sido tradicionalmente venerada por las gentes de mar de todo el País Vasco, y todavía hoy se realizan peregrinaciones al santuario desde diversas poblaciones costeras vascas.



### El retablo

Es una magnífica obra del siglo XVI atribuida al escultor Andrés de Araoz, aunque hay quien ve en él dos estilos y composiciones diferentes: el primero, con influencias góticas de inicios del XVI; el segundo, renacentista, de mediados de ese mismo siglo y donde al parecer se intuye la mano de Andrés de Araoz. El retablo fue mutilado en 1783, cuando se realizó el camarín de la Virgen. Posteriormente, en 1893, sufrió un incendio que lo destruyó en parte, siendo restaurado en 1899.

### Tradiciones y curiosidades

Cuenta la leyenda que, inicialmente, el lugar elegido para la ubicación del templo fue otro diferente al actual, pero los Ángeles, cumpliendo la voluntad de la Virgen, transportaban de noche los materiales al lugar donde hoy se asienta.



Juan Sebastián Elcano, jefe de la expedición de Magallanes tras la muerte de éste, lideró la misma y fue el primero en conseguir dar la vuelta al mundo. En su testamento dejó la voluntad de donar cuarenta ducados de oro a la iglesia de Nuestra Señora de Itziar.

En el muro de la fachada principal del templo está empotrada una gran bola de piedra caliza, que según la tradición es el proyectil de un enorme pedrero, antigua pieza de artillería, arrebatada en Bayona de Miño a los portugueses por los marinos de una nave de Deba en tiempos de los Reyes Católicos. La bala habría sido encajada en el muro el año 1476 como exvoto y como recuerdo de la gesta.

Al parecer, hasta principios del siglo XIX, los barcos provistos de algún elemento artillado, tanto mercantes como de guerra, disparaban veinte salvas de cañón al pasar a la altura del santuario de Itziar.

*Informazio gehiago*
*Para más información:*

Geoparkea Costa Vasca - Euskal Kostaldea
European Geoparks
Global Geoparks Network
Debako Udala
Turismo Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila
Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad
Euskadi Basque Country

